EMAK UMEEN ESKUBIDEAK

XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan, **emakumeen eskubideen iraultza** izan zen Espainian.



1910

Goi-mailako hezkuntzarako sarbidea. Emakumeek lortu zuten unibertsitatean matrikula egin ahal izatea gizonen baldintza beretan. **Emilia Pardo Bazán** Instrukzio Publikoko kontseilari izendatu ondoren eman zen dekretu hori.

1915

Andereñoen Egoitzaren sorrera. María Maeztuk zuzenduta, emakumeen unibertsitate-hezkuntza eta ostatatzea sustatzeko lehen zentro ofiziala sortu zen Madrilen.

1918

Espainiako Emakumeen Elkarte Nazionalaren (**ANME**) sorrera. Consuelo González Ramosek eta María Espinosa de los Monterosek sortu zuten, eta herrialdeko lehen erakunde feminista nagusia da, sufragista eta eskubide zibilen aldekoa.

1924

Lehen emakume zinegotziak, eta boto-eskubide mugatua. 25 urte baino gehiagoko emakumezkoei boto-eskubidea aitortu zitzaien (ezkonduei izan ezik). Urte horretan berean izendatu ziren lehen emakume zinegotziak Espainiako udaletan.

1926

Lyceum Club Femenino elkartearen sorrera. Besteak beste, María Maeztu, Victoria Kent eta Zenobia Camprubí intelektualek sustatu zuten, eta kulturaren, hezkuntzaren eta gizarte-eztabaidaren epizentro bilakatu zen garai hartako emakumeentzat.

1931

Emakumeen sufragio unibertsala onartzea. Bigarren Errepublikan, eskubide politikoak parekatu egin ziren. Clara Campoamor diputatuak parlamentuan gidatutako eztabaida baten ondoren, emakume guztien boto-eskubidea onartu zen.

1932

Dibortzioaren eta ezkontza zibilaren legeak. Lehen aldiz, legezko dibortzioa onartu zen, ezkontideak ados egonez gero edo bietako batek bidezko arrazoi batengatik eskatuz gero, eta ezkontideen arteko berdintasun juridikoa ezarri zen horrela.

1933

Emakumeek botoa eman zuten lehen hauteskundeak. 1933ko azaroaren 19an, Espainiako 6 milioi emakumek baino gehiagok botoa eman zuten lehen aldiz hauteskunde orokor batzuetan, gizonen baldintza beretan.

Zenobia Camprubik bere iloba Inesentzat antolatutako txangoa, 1930 inguruan. Irudian Ernestina de Champourcin, Marga Gil Roësset —lautearekin— eta bere arreba Consuelo Gil Roësset agertzen dira. Argazkiak Zilar Aroko idazle eta artistak batu zituen adiskidetasun eta konplizitate intelektualaren sareak islatzen ditu.